BIDEAREN ERDIAN
herrialde berri baterantz

RUTA
2018ko azaroa
1. zenbakia
Edizioa: jendearentzako
Salneurria: irribarre bat

PODEMOS.

Jendearen bizimodua hobetzeko aurrekontu-hitzarmena

Unidos Podemos alderdiak gizarte-neurrien sorta garrantzitsua lortu du PSOEren gobernutik

Pablo Iglesiasek eta Pedro Sánchezek 2019ko aurrekontuetarako hitzarmena itxi dute. Foto: Dani Gago

Zentsura-mozioaren ondorioz, besteak beste, sozialdemokrazia zaharraren eta, hitz erdika aritu gabe, korporazio handien eta aberatsenen zerga-pribilegioak bertan behera uztea eta, horrela, herritarren gehiengoaren bizi-baldintza materialak eta gizarte-eskubideak babestea bultzatzen dutenen arteko gobernu-lankidetza eraman da aurrera, portugaldarren eran.

Pedro Sánchezen eta Pablo Iglesiasen arteko hitzarmen garrantzitsuak ahozabalik utzi ditu analista asko; hala ere, Unidos Podemosek ibilbide-orri handizaleagoa proposatu zuen, eta bi aldeek amore eman behar izan zuten, tarteko puntu batera iristeko.

«Pablo Iglesias gobernuko presidente izatera iristen denean, gure proposamenak guztiz garatu ahal izango ditugu. Pozik gaude egindako hitzarmenarekin, milioika pertsonaren bizitzak hobetuko dituelako, baina tarteko urrats bat dela uste dugu. Izan ere, eraiki nahi dugun herrialde berri eta bidezkoago horren bidearen erdian gaude», diote Unidos Podemos alderdikoek.

M-15etik M-8ra, taxian eta pentsiodunen mareekin surfean

Justizia eta eskubideak aldarrikatzeko mobilizazio historikoak

Azken hilabeteetan, Espainiako kaleetara irten diren lagunek, guztion eskubideen alde borroka egiten dutenek, lezio handia eman diote herrialdeari, beren gorputz eta ahotsarekin «ezinezkoa da» dioten alderdiek, horiekin aliatutako komunikabideek eta IBEX 35eko nagusiek saltzen duten zinismoa eta etsipena ukatu baitute: M-8ko mobilizazio feminista historikoak eta La Manadakoek jasotako epai matxistaren aurkakoak; greban dauden taxilariak, egoitza paradisu fiskaletan duten putreen aurka zerbitzu publikoa defendatzen dutenak; Kongresuaren ate aurrean behin eta berriz manifestatu diren pentsiodunak, Bilboko kaleak astero betetzen dituztenak...; baina baita kellyak ere, Coca-Cola en Luchako borrokalariak, Vestasko eta La Navaleko langileak, zamaketariak eta bidezkoa denaren alde borroka egiten duten beste hainbat eta hainbat talde.

«Itxaropena inoiz galdu ez duen jende horren guztiaren indarrik gabe gu ez ginateke Kongresuan egongo, eta ezin izango genuke PP boteretik kendu, ez eta PSOEren Gobernuari kendu dioguna kendu», azaldu dute Podemosekoek. «Horiei guztiei eman behar dizkiegu eskerrak, eta bultzatzen jarrai dezatela eskatu behar diegu. Bidearen erdian gaude oraindik, eta ezinezkoa dela esango digute berriro».

Gutxieneko soldata 735 eurotik 900 eurora: demokrazian izan den igoerarik handiena

Jende guztia harritu duen neurria



Lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) igoera izan da hitzarmeneko neurririk harrigarriena (eta irismen handienekoa); negoziazio-ordu luzeen ondoren lortu zuen Unidos Podemosek neurri hori PSOEri erauztea, Pedro Sánchezen gobernuak askoz ere igoera txikiagoak bultzatzen baitzituen.

Azkenik, % 22ko igoera historikoa lortu ahal izan zen, eta, nahiko egoera ahulean dauden milioika langileren bizimodua hobetzeaz gain (emakumeak gehienak), kontsumoa bultzatuko du horrek (eta, horrekin batera, ekonomia), eta PP alderdiak dardarka utzi zuen pentsioen zorrorako milaka milioi euro gehiago biltzeko aukera emango du. Gainera, Susana Díazi eta antzekoei argi geratuko zaie Podemosko militantziak Rivera-Sánchez akordioari ezezko botoa eman zionean zeri egin zion uko; izan ere, hitzarmen-agiri hartan —ekonomista neoliberalek idatzitakoa— proposatutako lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera % 1ekoa baino ez zen (hau da, hilean zazpi euro, iraingarria).

Alderdi Popularra oposiziora, eta M. Rajoy Santa Polara

Azkenean, posible izan zen

M. Rajoy hemiziklotik irteten, zentsura-mozioak garaipena lortu ondoren. Foto: Dani Gago

2017ko ekainean, Unidos Podemos alderdiak duintasunaren zentsura-mozioa babestu zuen, ustelkeriaz erabat bustitako M. Rajoyren eta Alderdi Popularraren aurkakoa. Arlo publikoaren arpilaketen eta bizkarroien dozenaka kasu agertu arren, mozioak ez zuen aurrera egin, eta urtebetez behin eta berriro errepikatu zuten PP Moncloatik botatzeko boto nahikorik ez zegoela.

Hala ere, joan den ekaineko zentsura-mozio arrakastatsuak Pedro Sánchez Gobernuko lehendakari izendatu zuen, eta Podemosek arrazoi zuela eta lortu ahal zela erakutsi zuen.

Sozialisten eserlekuetan gertatutakoa sinesten ez zuten arren, Unidos Podemosko diputatuek «sí se puede» abestuz ospatu zuten mozioa. Murrizketen zazpi urte ilun amaitu ziren horrela, eta plazetan jaiotako formazioak 2014an Europako hauteskundeetako taula politikoan indar handiz sartu zenetik eragin handieneko etapa abiatu zuen.